

**ararteko**

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoría del Pueblo*

# TRATAMENDU- JARDUEREN ERREGISTROA

## AURKIBIDEA

<b>1</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>3</b>
<b>2</b>	<b>AURRETIKO AZTERKETA</b> .....	<b>3</b>
	2.1 Esparru juridiko aplikagarria .....	4
	2.2 Fitxategiei buruz Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazitako informazioa .....	5
	2.3 Tratamendu-jarduerak definitzea eta diseinatzea .....	6
<b>3</b>	<b>TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTROA (DBEOren 30.1 artikulua)</b> .....	<b>6</b>
	3.1 Komunikazioari, hedapenari eta gardentasunari loturiko tratamendua .....	7
	3.2 Ekonomia-kudeaketari eta kontratazio publikoa kontrolatzeari loturiko tratamendua .....	8
	3.3 Kexen eta kontsulten kudeaketari loturiko tratamendua .....	9
	3.4 Giza baliabideen kudeaketari loturiko tratamendua .....	11
	3.5 Hautaketa prozesuei loturiko tratamendua .....	13
	3.6 Beka-deialdietako parte-hartzaileei loturiko tratamendua .....	14
	3.7 Harremanetarako pertsoneri loturiko tratamendua .....	15
	3.8 Dokumentuen sarrera eta irteera erregistroari loturiko tratamendua.....	16
	3.9 Haurren Kontseiluari eta haur eta nerabeak babesteko politikari loturiko tratamendua	

## 1 SARRERA

Dokumentu hau 2016ko apirilaren 27an, pertsona fisikoen babesaren inguruko Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduaren (DBEO) 30. artikulua betez taxutu da. Erregelamendua datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetu du.

## 2 AURRETIKO AZTERKETA

Arartekoa Eusko Legebiltzarraren otsailaren 27ko 3/1985 Arartekoaren Legeak sortu eta arautu zuen, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 15. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta honela definitzen da: **Arartekoa Eusko Legebiltzarraren goi mandataria da eta pertsonen eskubideak defendatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen** (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak edo horien mendeko erakunde publikoak) **jarduera eta politika publikoei dagokienez**. Erakunde independente eta alderdikeriarik gabekoa da, eta euskal herritarrei doako zerbitzu publikoa eskaintzen die.

Gure ordenamendu juridikoan, datuen babeserako funtsezko eskubidea aitortzea jurisprudentzia konstituzionalean du jatorria. Datuen babeserako funtsezko eskubidea datu pertsonalen titularrari dagokion prestazio-eskubidea da; izan ere, prestazioa da eskubidearen funtsezko edukia.

Bere izaera dela eta, Arartekoaren jarduera datu pertsonalen tratamenduari lotzen zaio, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaren arabera.

Tratamendu-jarduerak erregistratzeak, erakundeen kasuan, informazio pertsonalaren tratamendua jasotzeko erregistro bikoitza –alde batetik, datuen arduradun gisa, eta bestetik, eragile gisa– eramateko betebeharra ezartzen du.

Erregistroa fitxategiaren **arduradunak** egiten badu, honako datu hauek jaso behar ditu:

- ✓ Identifikazio-datuak: arduradunarenak, erantzunkidearenak, haien ordezkariarenak eta datuak babesteko ordezkariarenak.
- ✓ Tratamenduaren helburuak.
- ✓ Interesdun- eta datu-kategoriaren deskribapena.
- ✓ Datu pertsonalak zer hartzaile-kategoriari komunikatu edo komunikatuko zaizkion (baita hirugarren herrialde bateko hartzaileak edo nazioarteko erakundeak direnean ere).
- ✓ Nazioarteko datu-transferentziak eta premiazko interes legitimoak oinarri hartuta salbuetsitako transferentzietan dagokien berme-dokumentazioa.

Ahal denean,

- ✓ Datuak ezerezteko aurreikusitako epeak.
- ✓ Segurtasun-neurrien deskribapen orokorra.

**Eragileak** eraman behar duen erregistroak honako informazio hau jaso behar du:

- ✓ Eragilearen izena eta harremanetarako datuak, bai eta eragilearen gaineko arduradun bakoitzarenak ere, eta halaber, eragilearen edo arduradunaren ordezkariarenak eta datuak babesteko ordezkariarenak.
- ✓ Arduradunaren kontura egindako tratamenduen kategoriak.
- ✓ Nazioarteko datu-transferentziak eta premiazko interes legitimoak oinarri hartuta salbuetsitako transferentzietan dagokien berme-dokumentazioa.
- ✓ Ahal denean, segurtasun-neurrien deskribapen orokorra.

4

Arartekoaren jardura aztertuta, egiaztatu da erakundeak ez duela eragile moduan datu pertsonalen tratamendurik egiten; hortaz, eragileari dagokion jardueren erregistroa egitea ez da beharrezkoa izango.

## 2.1 Esparru juridiko aplikagarria

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean ezarritakoaz gain, Arartekoaren jarduerak honako arau hauek bete behar ditu:

- 3/1985 Legea, otsailaren 27koa, Ararteko erakundea sortu eta arautzeari buruzkoa (EHAA, 63. zk., 1985eko martxoaren 22a, ostirala).
- Ararteko erakundearen Antolaketa eta funtzionamendurako Araudia (EHAA, 56. zk., 2010eko martxoaren 24a, asteazkena).
- Eusko Legebiltzarraren Araudia. V. titulua. I. kapitulua. Arartekoarekiko harremanak.
- 5/2017 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituena.



- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.
- 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duena.
- 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Elkarreragingarritasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. Horren bidez, Espainiako ordenamendu juridikoan 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentu eta Kontseiluko 2014/23/UE eta 2014/24/UE zuzentarauak sartu dira.

## 2.2 Fitxategiei buruz Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazitako informazioa

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraikiz, Arartekoak honako fitxategi hauen berri eman du Datuak Babesteko Bulegoan:

5

Fitxategiaren izena	HELBURUA
Pertsonen datu-basea	Ararteko erakundearen aplikazioetan erregistratuta dauden pertsonen datuak jasotzen dituen basea.
Jarduketak jakinaraztea eta horien zabalkundea	Pertsonen, elkarten, hedabideen, administrazio publikoen edo beste erakunde batzuek datuak jasotzea eta tratatzea, burututako jarduketei buruzko informazioa emateko.
Kontabilitatea eta ekonomia-kudeaketa	Kontratazio eta gastuei buruzko espedienteak, kontularitzako dokumentuak eta zerga- edo tributudokumentazioa kudeatzea eta bideratzea, baita erakundearen funtzionamendurako ezinbesteko eskuraketak kudeatzea eta hornitzaileei ordaintzea ere.
Liburutegiaren kudeaketa	Ararteko erakundearen liburu eta dokumentazioa baimendutako pertsoneri maileguan uztea arautzea.
Kexen kudeaketa	Herritarrek Arartekoan aurkezten dituzten kexa-idazkiak –baita horiek sortzen dituzten espedienteak eta ofizioz hasitako espedienteak ere– kudeatzea, izapidetzea eta horien jarraipena egitea.
Giza baliabideen kudeaketa	Giza baliabideen kudeaketa, langileen nominak prestatzea, kontrolatzea eta kudeatzea; lanorduen

Fitxategiaren izena	HELBURUA
	kontrola.
Beka-deialdietako parte-hartzaileak	Ikerketa aplikatuko beka emateko prozesuak izapidetzeko behar diren datuak jasotzea.
Sare sozialen erabiltzaileak	Sare sozialetan izena ematen duten eta/edo gaur egungo (edo etorkizuneko) bide elektronikoen bitartez harremanetan jartzen diren pertsona erabiltzaileak erregistratzea.
Dokumentuen sarrera eta irteeraren erregistroa	Arartekoaren erakundearen jasotzen diren eta erakundeak bidaltzen dituen dokumentuen kudeaketa.

### 2.3 Tratamendu-jarduerak definitzea eta diseinatzea

Arartekoaren jarduerari loturiko fitxategien multzoa aztertu ondoren, datu pertsonalen xedeak, oinarri juridikoak eta titularren taldeak kontuan hartuta, honako tratamendu multzo hau zehaztu da.

6

Zk.	DPBL FITXATEGIA	DBEO TRATAMENDUA
1	Komunikazioa eta hedapena (jarduketei dagokienez) Sare sozialen erabiltzaileak	Komunikazioa, hedapena eta sare sozialen kudeaketa
2	Kontabilitatea eta ekonomia-kudeaketa	Kontabilitatea eta ekonomia-kudeaketa
3	Kexen kudeaketa	Kexen eta kontsulten kudeaketa
4	Giza baliabideen kudeaketa	Giza baliabideak kudeatzea
5		Hautaketa prozesuak (berria)
6	Beka-deialdietako parte-hartzaileak	Beka-deialdietako parte-hartzaileak
7	Pertsonen datu-basea	Harremanetarako pertsonak
8	Dokumentuen sarrera eta irteeraren erregistroa	Dokumentuen sarrera eta irteeraren erregistroa
9	Liburutegiaren kudeaketa	(Ararteko erakundetik kanpoko mailegurik ez dagoenez, giza baliabideen kudeaketan sartu da)

## 3 TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTROA (DBEOren 30.1 artikulua)



Erregistro honetan jasotako tratamendu guztiak Arartekoaren erantzukizunekoak dira.

### 3.1 Komunikazioari, hedapenari eta gardentasunari loturiko tratamendua

#### Arduradunaren izena

Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

Datuak babesteko ordezkaria (DBO): Inmaculada de Miguel. [lopdp@ararteko.eus](mailto:lopdp@ararteko.eus)

#### Helburua

Erakundearen komunikazioa kudeatzea: buletinen, txostenen, azterlanen eta erakunde-informazio ororen zabalkundea.

Herritarrekiko interakzioa kudeatzea, interes publikokoa den informazioa komunikatu eta zabaltzeko bide elektronikoak eta ez elektronikoak erabiliz.

7

#### Oinarri juridikoa

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa betetzea.

19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

6/2010 Legea, abenduaren 23koa, Euskadiko publizitate eta komunikazio instituzionalari buruzkoa.

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

#### Datu-kategoria

Identifikazio-datuak: izena, abizenak, posta elektronikoko helbidea, telefono-zenbakia, erabiltzaile-izena sare sozialean, argazkia edo irudia.

Datuen jatorria: interesduna bera eta harremanetarako pertsonak, enpresa, erakunde, administrazio publiko, beste herri-defendatzaile erakunde batzuetan





(nazioartekoak barne), baita elkarte, gobernu-antolakunde eta Arartekoarekin harremana duen edozein sozietate edo erakundetan ere.

### **Kanpoko hartzaileak**

Ez daude aurreikusita.

### **Datuak ezabatzeko epeak**

Datu pertsonalak kontaktu-agendan eta erakunde-harremanak jasotzen dituen datu-basean geratuko dira, datuen titularrek ezerezteko eskatu arte edo datuak gaurkotasuna galdu arte.

### **Nazioarteko transferentziak**

Ez daude aurreikusita.

### **Segurtasun-neurriak**

Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasuneko Estatuko Eskeman aurreikusitakoak dira eta Arartekoan tratatzen den informazioaren segurtasunari buruzko dokumentuetan azalduta daude.

8

## **3.2 Ekonomia-kudeaketari eta kontratazio publikoa kontrolatzeari loturiko tratamendua**

### **Arduradunaren izena**

Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

DBO: Inmaculada de Miguel: [lopdp@ararteko.eus](mailto:lopdp@ararteko.eus)

### **Helburua**

Kontratazio eta gastuei buruzko espedienteak, kontularitzako dokumentuak eta zerga- edo tributu-dokumentazioa kudeatzea eta bideratzea, baita erakundearen funtzionamendurako ezinbesteko eskuraketak kudeatzea eta hornitzaileei ordaintzea ere.

### **Oinarri juridikoa**







Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

9/2017 Legea, urriaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

58/2003 Legea, abenduaren 17koa, Zergei buruzko Lege Orokorra, eta lurralde bakoitzean aplikagarriak diren foru-arauak.

### **Datu-kategoria**

Identifikazio-datuak: izena, abizenak, posta-helbidea, telefono-zenbakia.

Enplegatutako pertsona fisikoak edo Arartekoarekin kontratu-harremana duten pertsona juridikoenak.

### **Kanpoko hartzaileak**

Eusko Legebiltzarra.

### **Datuak ezabatzeko epeak**

Datuak behar den denboran gordeko dira, datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datu-tratamendutik etor litezkeen erantzukizunak zehazteko, Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrekin bat, eta artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritako epeetan.

### **Nazioarteko transferentziak**

Ez daude aurreikusita.

### **Segurtasun-neurriak**

Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasuneko Estatuko Eskeman aurreikusitakoak dira eta Arartekoan tratatzen den informazioaren segurtasunari buruzko dokumentuetan azalduta daude.

## **3.3 Kexen eta kontsulten kudeaketari loturiko tratamendua**

### **Arduradunaren izena**

Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)





DBO: Inmaculada de Miguel: [lopdp@ararteko.eus](mailto:lopdp@ararteko.eus)

## Helburua

Arartekoak herritarren eskura jarri dituen eta zerbitzuen kartan deskribatuta dauden bideak erabiliz herritarrengandik jasotako esku hartzeko eskaerei erantzutea.

Arartekoari bidalitako kexak eta kontsultak –baita horiek sortzen dituzten espedienteak eta ofizioz hasitako espedienteak ere– kudeatzea, izapidetzea eta horien jarraipena egitea.

## Oinarri juridikoa

Ararteko erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen II. tituluan ezarritakoa betetzea.

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

10

## Datu-kategoria

Kexa edo kontsulta aurkeztu duen pertsona identifikatzeko datuak, adibidez, izena, abizena, nortasun-agiri nazionala, posta-helbidea, helbide elektronikoa, telefono-zenbakia.

Kexa edo kontsulta zehatz bati loturiko datuak, tartean sartutako hirugarrenen datuak barnean eduki ditzakeenak.

Bereziki babestutako datuak, kexa edo kontsultaren arrazoia den interesdunaren egoera zehatzari loturikoak.

## Kanpoko hartzaileak

Herriaren Defendatzailea eta beste herri-defendatzaile batzuk.

EAEko administrazioak Arartekoaren eginkizunen esparruan.

Agintari judizialak, errekerimendua eginez gero.

## Datuak ezabatzeko epeak



Datuak behar den denboran gordeko dira, datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datu-tratamendutik etor litezkeen erantzukizunak zehazteko, batez ere prozedura judizialek dirauten bitartean, baita artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritako epeetan ere (6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondarearena, honako kapitulu hau izan ezik: Euskal Kultura Ondareari buruzko ekainaren 3ko 7/1990 Legearen III. tituluaren VI. kapitulua, ondare dokumentalarena).

### **Nazioarteko transferentziak**

Ez daude aurreikusita.

### **Segurtasun-neurriak**

Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasuneko Estatuko Eskeman aurreikusitakoak dira eta Arartekoan tratatzen den informazioaren segurtasunari buruzko dokumentuetan azalduta daude.

## **3.4 Giza baliabideen kudeaketari loturiko tratamendua**

11

### **Arduradunaren izena**

Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

DBO: Inmaculada de Miguel: [lopd@ararteko.eus](mailto:lopd@ararteko.eus)

### **Helburua**

Langileen kudeaketa, nominak egitea, prestakuntza eta laneko istripuak prebenitzea.

### **Oinarri juridikoa**

Kontratu-harremana, non interesduna aldeetako bat baita, Ararteko erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen eta Ararteko erakundearen Antolaketa eta funtzionamendurako araudiaren arabera.

Langileen Estatutua eta Legebiltzarreko administrazioaren araubide juridikoa 1990eko ekainaren 22koa.

6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.





31/1995 Legea, Lan-arriskuen Prebentzioarena.

### **Datu-kategoria**

Arartekoko pertsonaleko kideak diren pertsonen datuak.

Izen-abizenak, NAN/IFK/identifikazio-agiria, langilearen erregistroko zenbakia, Gizarte Segurantzaren / mutualitatearen zenbakia, helbidea, sinadura eta telefono-zenbakia.

Ezaugarri pertsonalen datuak: sexua, egoera zibila, nazionalitatea, adina, jaiotze-data eta -tokia, familiaren datuak. Familia egoerari buruzko datuak: alta eta bajaren datak, lizentziak eta baimenak.

Datu akademikoak eta profesionalak: tituluak, prestakuntza maila eta lanbide-erperientzia.

Datu ekonomiko-finantzarioak: nominari buruzko datu ekonomikoak, banku-datuak.

### **Kanpoko hartzaileak**

12

Lan-arriskuen arloko kudeaketaz arduratzen arduratzen denarekin zerikusirik ez duen prebentzio-zerbitzua.

Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala eta Diruzaintza Nagusia.

Zerga-administrazioa.

Finantza-erakundeak.

Kontuen Auzitegia.

Eusko Legebiltzarra.

### **Datuak ezabatzeko epeak**

Datuak behar den denboran gordeko dira, datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datu-tratamendutik etor litezkeen erantzukizunak zehazteko, erakundeko langileei ezarri beharreko xedapenetan ezarritakoari jarraiki, baita artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritako epeetan ere (6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondarearena, honako kapitulu hau izan ezik: Euskal Kultura Ondareari buruzko ekainaren 3ko 7/1990 Legearen III. tituluaren VI. kapitulua, ondare dokumentalarena).





## Nazioarteko transferentziak

Ez daude aurreikusita.

## Segurtasun-neurriak

Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasuneko Estatuko Eskeman aurreikusitakoak dira eta Arartekoan tratatzen den informazioaren segurtasunari buruzko dokumentuetan azalduta daude.

### 3.5 Hautaketa prozesuei loturiko tratamendua

#### Arduradunaren izena

Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

DBO: Inmaculada de Miguel: [lopdp@ararteko.eus](mailto:lopdp@ararteko.eus)

#### Helburua

Arartekoan behin-behineko langileentzako lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuen kudeaketa.

#### Oinarri juridikoa

Kontratuaren aurreko harremana, non interesduna aldeetako bat baita, Ararteko erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen eta Ararteko erakundearen Antolaketa eta funtzionamendurako araudiaren arabera.

#### Datu-kategoria

Lanposturako hautagaiaren datuak.

Izen-abizenak, NAN/IFK/identifikazio-agiria, helbidea, sinadura eta telefono-zenbakia.

Ezaugarri pertsonalen datuak: sexua, nazionalitatea, adina, jaiotze-data eta -tokia.

Datu akademikoak eta profesionalak: tituluak, prestakuntza maila eta lanbide-erperientzia.

Irudi-datuak: argazkia.





## Kanpoko hartzaileak

Indarrean dagoen legedia betez, dagokion buletinean argitaratzen diren datuak.

## Datuak ezabatzeko epeak

Datuak behar den denboran gordeko dira, datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datu-tratamendutik etor litezkeen erantzukizunak zehazteko, baita artxiiboari eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritako epeetan ere (6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondarearena, honako kapitulu hau izan ezik: Euskal Kultura Ondareari buruzko ekainaren 3ko 7/1990 Legearen III. tituluaren VI. kapitulua, ondare dokumentalarena).

## Nazioarteko transferentziak

Ez daude aurreikusita.

## Segurtasun-neurriak

Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasuneko Estatuko Eskeman aurreikusitakoak dira eta Arartekoan tratatzen den informazioaren segurtasunari buruzko dokumentuetan azalduta daude.

14

## 3.6 Beka-deialdietako parte-hartzaileei loturiko tratamendua

### Arduradunaren izena

Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

DBO: Inmaculada de Miguel: [lopd@ararteko.eus](mailto:lopd@ararteko.eus)

### Helburua

Ikerketa aplikatuko bekak emateko prozesuak kudeatzea eta izapidetzea.

### Oinarri juridikoa

Tratamendua beharrezkoa da harreman juridikoa gauzatzeko, Ararteko erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen eta Ararteko erakundearen Antolaketa eta funtzionamendurako araudiaren arabera.





### Datu-kategoria

Beka-eskatzaileen datuak.

Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NAN zenbakia, sinadura, posta elektronikoa, helbidea, telefonoa.

Datu akademikoak eta profesionalak.

### Kanpoko hartzaileak

Ez daude aurreikusita.

### Datuak ezabatzeko epeak

Datuak behar den denboran gordeko dira, datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datu-tratamendutik etor litezkeen erantzukizunak zehazteko, eta artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritako epeetan.

### Nazioarteko transferentziak

Ez daude aurreikusita.

15

### Segurtasun-neurriak

Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasuneko Estatuko Eskeman aurreikusitakoak dira eta Arartekoan tratatzen den informazioaren segurtasunari buruzko dokumentuetan azalduta daude.

## 3.7 Harremanetarako pertsonen loturiko tratamendua

### Arduradunaren izena

Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

DBO: Inmaculada de Miguel: [lopdp@ararteko.eus](mailto:lopdp@ararteko.eus)

### Helburua

Arartekoak dagozkion eginkizunak betetzen dituzenean berarekin harremanetan jartzen diren erakunde, enpresa, administrazio, elkarte eta beste antolakunde batzuetako harremanetarako pertsonen harremanak kudeatzea.



### Oinarri juridikoa

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

Arartekoaren erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legean ezarritakoa betetzea.

### Datu-kategoria

Interesdunak berak emandako datuak, protokolo-harremanetan jasotakoak, eta enpresa, sozietate, erakunde, administrazio publiko, antolakunde, beste herri-defendatzaile batzuekiko eta Arartekoarekin harremanetan jar daitekeen edozein pertsona juridikorekiko harremanetan jasotakoak.

Kontaktu-datuak, honako hauek barne: izen-abizenak, helbidea, telefono-zenbakia, kargua, lanpostua.

### Kanpoko hartzaileak

16

Ez daude aurreikusita

### Datuak ezabatzeko epeak

Datu pertsonalak kontaktu-agendan eta erakunde-harremanak jasotzen dituen datu-basean geratuko dira, datuen titularrek ezerezteko eskatu arte edo datuak gaurkotasuna galdu arte.

### Nazioarteko transferentziak

Ez daude aurreikusita.

### Segurtasun-neurriak

Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasuneko Estatuko Eskeman aurreikusitakoak dira eta Arartekoan tratatzen den informazioaren segurtasunari buruzko dokumentuetan azalduta daude.

## 3.8 Dokumentuen sarrera eta irteera erregistroari loturiko tratamendua







## Arduradunaren izena

Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

DBO: Inmaculada de Miguel: [lopd@ararteko.eus](mailto:lopd@ararteko.eus)

## Helburua

Jasotzen eta igortzen diren dokumentuen erregistroa kudeatzea.

## Oinarri juridikoa

Ararteko erakundea sortu eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betetzea.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

## Datu-kategoria

Identifikazio-datuak: izena, abizenak, posta elektronikoko helbidea, telefono-zenbakia, sare sozialean hautatuko erabiltzaile-izena.

Dokumentuarekin loturiko datuak, hala badagokio.

## Kanpoko hartzaileak

Erregistroko datuak eska ditzaketen administrazio-organoak.

## Datuak ezabatzeko epeak

Datuak behar den denboran gordeko dira, datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datu-tratamendutik etor litezkeen erantzukizunak zehazteko. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

## Nazioarteko transferentziak

Ez daude aurreikusita.

## Segurtasun-neurriak



Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasuneko Estatuko Eskeman aurreikusitakoak dira eta Arartekoan tratatzen den informazioaren segurtasunari buruzko dokumentuetan azalduta daude.

### 3.9 Haurren Kontseiluari eta haur eta nerabeak babesteko politikari loturiko tratamendua

#### Arduradunaren izena

Arartekoa – Euskadiko Herriaren Defendatzailea: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)

DBO: Inmaculada de Miguel: [lopd@ararteko.eus](mailto:lopd@ararteko.eus)

#### Helburua

Haur eta Nerabeentzako Kontseiluko eta Bulegoko jarduerak antolatzea, haur eta nerabeei dagozkien erakundearen politikak kudeatzearen esparruan.

Neskatoak, mutikoak eta nerabeak babesteko barne-politika kudeatzea.

18

#### Oinarri juridikoa

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko zeregin bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari eman dizkioten botere publikoak gauzatzeko, lege hauen arabera: otsailaren 27ko 3/1985 Legea, Ararteko erakundea sortu eta arautzekoa; abenduaren 23ko 3/2009 Legea, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea aldatzekoa; eta Ararteko erakundearen Antolaketa eta funtzionamendurako araudiaren 15. artikulua. Arartekoaren 2020ko urriaren 8ko Ebazpena, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Politika onartzen duena.

Gurasoen/legezko tutoreen baimena, honako hauetan ezarritakoaren arabera: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.a) artikulua; maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzkoa.

#### Datu-kategoria

Identifikazio-datuak: izena, abizenak, posta elektronikoko helbidea, telefono-zenbakia, irudia, ahotsa, adina.

Beste datu batzuk, haur eta nerabeak babesteko barne-politikari buruzko gorabeherak kudeatzearen ondoriozkoak.



### **Kanpoko hartzaileak**

Estatuko eta autonomia-erkidegoetako haurren beste defentsa-erakunde batzuk, eta, hala badagokio, Europakoak ere bai, adibidez, Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea (ENOC).

Edonor, Haur eta Nerabeentzako Kontseiluaren jarduera-esparruan burututako ekintzak hedabideen bidez zabalduz.

Organo judizialak eta Adingabeen Fiskaltza.

### **Datuak ezabatzeko epeak**

Datuak behar den denboran gordeko dira, datu-bilketaren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datu-tratamendutik etor litezkeen erantzukizunak zehazteko. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da (6/2019 Legea, Euskal Kultura Ondarearena, honako kapitulu hau izan ezik: Euskal Kultura Ondareari buruzko ekainaren 3ko 7/1990 Legearen III. tituluaren VI. kapitulua, ondare dokumentalarena).

19

### **Nazioarteko transferentziak**

Gizarte-sareak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 49.1 artikuluan aurreikusitako salbuespenen arabera.

### **Segurtasun-neurriak**

Ezarritako segurtasun-neurriak Administrazio Elektronikoaren eremuko Segurtasuneko Estatuko Eskeman aurreikusitakoak dira eta Arartekoan tratatzen den informazioaren segurtasunari buruzko dokumentuetan azalduta daude.

